

Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Ormaetxea jaunak, eritik-erri bildu dituen itz eta esakerak ekañi dizkigu, alako ipui-napar batzuez ondo ornituak. Itzak aberastu lezakete iztegia.

II.—Jaun onek berak adierazi zigun *Erizkizundi-Irukoitza*'n egin duen lana, lan auxe oraintxe bukatu duelarik. Bildu diran aldakuntza guzien batasuna egin du, ta baten batzuk iragañiak dira. Lan onegatik mila peseta emango zaizkio.

III.—Oleaga jaunak ekañi dizkigu Aratian bildu dituen euskal-itzak ta Azkue'ren Iztegiak ez dauzkanak.

IV.—Lakonbe jaunak irakuñi zizkigun Intxauspe apaiz xuberotañak Bonaparte'ri biali zizkion ezkutitz batzuek. Aditz-xuberotañari dagokion lana irañi nai-ta, igoñi zizkion ezkutiz abek. Beste ezkutitz batzuetan *Dialogues Basques* aipatzen da, Uriarte, Ituriaga, Duvoisin ta Intxauspe beroni euskerara itzultzeko egoztia.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzañaldia.

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Epai-laren 26'an.

Batzañean jaun abek bildu dira: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Lakonbe; euskaltzainordeko Ormaetxea eta Bähr eta Belaustegigoitia urgazleak.

I.—Landeñetxe jaunak lengo bere lanari azkena emanik, bildu dituen euskal-esakerak irakuñi dizkigu. Lan-zati auxe ere *Euskera*'n argitaratuko da.

II.—Aita Olabide'k ekañi dizkigu Mendiburu'ren liburuetan arkitu dituen adizkerak.

III.—Azkue jaunak Efonkari'ko euskalki-berezian, ipui batzuek irakurri dizkigu ta tartetako itz batzuek iragariaz.

IV.—Azkue jaunak bere *Morfologia*'n dakarzkien atzizki *-bel -bil* gaitzat artu-ta Eguskitza jaunak txosten eder bat irakurri digu, batez ere, aiforturik atzizki oyek lerabilkiten ikurpena.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Joñaila' ren 29'an.

Batzañaldira jaun abek datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, ta Lakonbe, eta Muxika eta Garitaonandia euskaltzain-ordekoak.

I.—Aita Intza'k iragartzen digu, Lekarotz'ko Ikastetxean izango dala, urtero bezela, euskal-azterketa ta egoki litzakela euskaltzain bat antxe agertzea.

Aita Intza beroni eman zayo Euskaltzaindiaren ordezkuntza.

II.—Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* Auritz'en izango dute. Garagañila'ren 27'an, alako jai berezi bat. Azkue jauna nai litzake itzalditxo bat egiteko. Onek bayezkoa eman du.

III.—*Eusko-Ikaskuntza*'ren idazki bat irakurri da ta idazki onez Madrid'ko bere Batzordearen eskari bat azaltzen digu. Batzorde oñek erdal-euskal iztegitxo bat nai luke.

Onetzaz erabaki auxe artu da: Iztegi orixe argitaratu, bañan ontarako Azkue jaunak lendik egiña daukana buru artu-ta.